

## JESUKRISTO GURE JAUNAREN AITA

### **A.A.A.**

Agur Jesusen Aita,  
neurea ere baita;  
Beragaz zaitut maita  
*A.a.a. Agur Jesusen Aita*

### **E.E.E.**

Ene Aitatxo maite,  
nik zure borondate  
beti nahi neuke bete.  
*E.e.e. Ene Aitatxo maite*

### **I.I.I.**

Aitaren Zerbitzari  
gizonen ordezkari  
gure alde opari.  
*I.i.i. Aitaren Zerbitzari.*

### **O.O.O.**

Zuk badakizu ondo  
nik zaitut maiteago  
beste guztiak baino.  
*O.o.o. Zuk badakizu ondo.*

### **U.U.U.**

Harrigarri zara Zu  
ahuzpeztuta naukazu  
otoitzean jo ta su  
*U.u.u. Harrigarri zara Zu.*

Gure Aita ta dana  
Zeruetan zarana  
nik maite zaitudana  
*A.a.a. Gure Aita ta dana*

### **E.E.E.**

Jainko Izenaren jabe  
Zureak goi ta behe  
danak autortzen dabe.  
*E.e.e. Jainko Izenaren  
jabe.*

### **I.I.I.**

Erreinuaren barri  
nahi dogu iragarri  
munduan martxan jarri.  
*I.i.i. Erreinuaren barri*

### **O.O.O.**

Nire buru ta gogo  
Aita, beti prest nago  
zure nahia egiteko.  
*O.o.o. Nire buru ta gogo*

### **U.U.U.**

Ogia emoiguzu  
gure zorrak parkatu  
bardin daigun jokatu.  
*U.u.u. Ogia emoiguzu*

**A.A.A**

Guk sinisten doguna  
Aitaren maitasuna  
Zuk beti deuskuzuna  
*A.a.a. Guk sinisten doguna*

**E.E.E.**

Bakarrik itzi nabe  
zatoz Zeu nire alde  
ezin dot nik Zu gabe.  
*E.e.e. Bakarrik itzi nabe.*

**I.I.I.**

Aitatxo, Zeuk ikusi  
ez ni bakarrik itzi

laguntza erakutsi

*I.i.i. Aitatxo, Zeuk ikusi*

**O.O.O**

Hau eta ondorengo  
zure eskuetan dago  
Zeuk nahi dozuna ondo.  
*O.o.o. Hau eta ondorengo.*

**U.U.U.**

Zeure semea nozu  
nahi dozuna egizu  
zer egin Zeuk dakizu.  
*U.u.u. Zeure semea nozu*